

**BILERA-AKTA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO  
ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK 2016KO IRAILAREN 12AN  
EGINDAKOARENA**

Presidenteak deituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko administrazio-kontseilua eratu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitzan, 2016ko irailaren 12ko 09:00etan. Honako hauek bertaratu dira, eta hau izan da gai-zerrenda:

**DEITUTAKOAK**

**PRESIDENTEA**

Jon Darpón Sierra jauna

**PRESIDENTEORDEA**

Guillermo Viñegra García jauna

**KIDEAK**

Pedro Hernando Arranz jauna  
Hernando Lacalle Edeso jauna

**IDAZKARIA**

María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea

Presidenteak gonbidatuta, Jon Etxeberria Cruz Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia ere deitu da kontseiluaren bilerarako.

Iñaki Berraondo Zabalegui jaunak bertaratu ezin izana justifikatu du.

## GAI-ZERRENDA

### **LEHENENGOA.- Administrazio-kontseiluaren 2016ko uztailaren 18ko saioko akta irakurri, eta, hala badagokio, onartu**

2016ko uztailaren 18ko bilera-akta kontseiluko kideei bidali zaienez aurretik, irakurritzat jo da. Presidente jaunak kontseiluaren irizpean utzi du, eta onartu egin da.

### **BIGARRENA.- Erabakia, erakunde publikoaren 2016rako enplegu-eskaintza publikoa onartu zuen 2016ko apirilaren 25eko erabakia aldatzen duena.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko administrazio-kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko erabakiaren (2016ko maiatzaren 17ko EHAAn argitaratu zen) bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren 2016rako enplegu-eskaintza publikoa onartu zen. Bertan, txanda librean 929 plaza eskaintzea aurreikusi zen.

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44.1. artikuluekin bat eginez, aipatu erabakia alda dezala eskatu dio administrazio honi, 17 lanpostu kentzeko 2016rako enplegu-eskaintza publikotik, non 929 toki zeuden txanda librean.

Errekerimendua aztertuta, ez gatoz bat Estatuko Administrazioak aldebakarrez egin duen interpretazioarekin, uste baitugu Estatuko 2016rako Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 20.Bat.4. artikuluan ezarritako zenbaketa-irizpideei egokitzen zaizkiela aipatu 17 plazak, berariaz adierazten baitu "...zerbitzuetako kargu-uzteak zenbatuko direla erretiroagatik, heriotzagatik, uko egiteagatik, lanpostua gorde gabeko eszedentzia-egoera adierazteagatik, karrerako funtzionario izateari uzteagatik, lan-kontratua iraungitzeagatik edo lanpostua gordetzea ez dakarren zein kargua utzi den administrazioaren kargurako ordainsaririk jasotzea ez dakarren bestelako edozein egoera administratiborengatik". Hala ere, interes orokorrenzat lehentasunezkoa da, eta administrazio honi dagokio horiek babestea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lan-eskaintza publikoa zaintzea, ahal den neurrian saihestuz prozesu judizial batek eragin diezaiola.

Ondorioz, Zuzendaritza Nagusiaren proposamenez, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren gizarte-estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5.f) artikulua arabera, Administrazio-kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2016ko irailaren 12ko bileran:

### **ERABAKIA**

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio-kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko erabakia aldatzea, erakunde publiko horren 2016rako enplegu-eskaintza publikoa onartzen duena, baldintza hauetan:

2016rako enplegu-eskaintza publikoa osatzen duten lanpostuak 912 dira guztira txanda librean.

Osakidetzako Giza Baliabideak Antolatzeko Plana garatuz, barne-sustapeneko hautapen-prozesuen deialdia onartzen da 288 plaza betetzeko.

Bigarrena.- 1.200 lanposturen eskaintzari eustea, azaldutako banaketarekin.

Hirugarrena.- 2016ko apirilaren 25eko erabakiaren gainerako edukiak indarrean jarraitzen du, onartutako baldintzetan.

Laugarrena.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da erabaki hau.


Bosgarrena.- Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da erabakiaren aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean.

### **HIRUGARRENA.- Galde-eskeak**

Eta jorrazteko gai gehiago ez dagoenez, 10:00etan amaitu da 2016ko irailaren 12ko bilera.



**Sin: María Jesús Gemma MÚGICA ANDUAGA  
IDAZKARIA**



**Sin.: JON DARPÓN SIERRA  
PRESIDENTEA**